




LIBURUA

Bost aurpegiko narrazio dramatiko



PENTAEDROA TXEMA GARCIA-VIANA

ELKAR, 2019

AMAIA SERRANO MARIEZKURRENA

Txema Garcia-Vianaren nobela honetako istorioak 36ko Gerran kokatzen dira. Pertsonaiak klase sozial, genero, ideologia politiko eta ogibide ezberdinetakoak dira, eta *Pentaedroa* izeneko proiektu kulturalak biltzen ditu guztiak. Narratzaile orojakile batek haiengan fokalizatuz eraikitzen ditu kontakizunen arteko zubiak; hala ere, narrazio-ildo bakoitza hain da beregaina eta ezberdina, ezen batzuetan narratzailea aldatzen dela dirudi. Egitura narratibo etenak irudipen hori indartzen du, nobela bat bainoago ipuin bilduma bat irakurtzen ari garela. Amaieran argiago antzematen zaio nobelaren formari, eta kontakizunen arteko loturak argitzen dira. Orduan nabarmentzen da bereziki gerraren absurdoa, fronteko erresistentzian luzaz

aritu ondoren, garaile irteteko bizitza jokoan jarri eta azken ekintzak zentzugabekeria hori agerian uzten duenean, hain zuzen.

Egituraz gain, nobela honen lorpen handi bat dikotomietatik ihes egiten duten pertsonaiak sortzea da: anarkisten eta komunisten arteko liskarrak, Errepublikako gobernuaren ustelkeriak, gudariaren irudikapen arbuia-garria, milizianoen eta gudarien arteko harreman gatazkatsua, eta abar. Frankisten bandoan ere badira botere-harremanak, falangistek erreketen gaineko nagusitasuna erakusten baitute.

Kontakizun bakoitzak protagonista bat du, baina haren ondoan gatazka eragingo duen beste kideren bat ageri da: Jaime-Sebastian, Pauline-Alberto, Joxe-Gabriel, Inaxio-Manuel eta Eva-Joan.

Ez dira bata bestearen ifrentzu, baina haien arteko erlazioak ardazten du gertaeren norabidea. Muturreko egoeretan batak bestearengan konfiantza izatea ezinbestekoa da, baina traizioek ezusteko bat baino gehiago dakarte. Bestalde, nabarmentzekoa da protagonistek antzerki-proiektuan jarritako ilusioa. Gerrak zapuztutako proiektu kultural horrek, ordea, egoera jakin batzuetatik salbatzeko bidea errazten die hein batean, antzezpenaren bidez heriotza saihestera heltzen baitira.

Nobela interesgarria da, Irun Saria lortu duena. Baditu pasarte indartsuak, narratzailearen iruzkin ironikoak eta sorpresak. Haatik, zenbaitetan, harri-dura bilatze hori sinesgarritasunaren kaltetan gertatzen da, eta kasualitate handiegia bihurtzen dira ezusteko. ●